



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

BARKAMENA / ADISKIDETZEAREN SAKRAMENTUA

5. SAIOA

GURASOAK PARROKIAN

**Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**



**"Nik ere ez zaitut
gaitzesten; zoaz, eta ez
egin berriro bekaturik"**
Joan 8, 11

1. Helburua

Adiskidetzaren sakramentuan, Elizak Jesusen izenean barkatu egiten gaituela aitortu.

2. Helburu bereziak

- Barkamena ezinbesteko dugula konturatu.
- Jesusek Jainkoaren erruki eta barkamenari buruz agertzen digun mezua ezagutu.
- Adiskidetzaren sakramentua ulertu.
- Nork bere burua prestatu adiskidetzaren sakramentuan parte hartzeko eta ospatzeko.



Idea nagusiak

- Jesusen jarraitzaile izateak gure akatsei eta besteenei beste era batera aurre egitea dakarkigu.
- Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala.
- Jesusek bere bizitzarekin (hitzez eta egitez) erakusten digu Jainkoak lagun bakoitzari dion maitasuna eta maitasunetik barkamena eta adiskidetzea bizitzera deitzen gaitu.
- Barkamen/adiskidetzaren sakramentuaren bidez, Elizak Jesusen izenean barkatzen gaitu.




Ezinbesteko lagungarriak

- Eranskinen kopiak.
- Bideoak ikusi (ordenagailuan jaitsita daudela ziurtatu).

Garrantzitsua da denbora hartzea saioaren jardunbidea ulertzeko eta, aldezturik, behar izango dugun guztia prestatzeko.

"NIK ERE EZ ZAITUT GAITZESTEN; ZOAZ, ETA EZ EGIN BERRIRO BEKATURIK" (Joan 1, 8)

A. SESIÓN PARA MADRES Y PADRES EN LA PARROQUIA



Saiorako gida

Katekistarentzat ...

Saioa hiru unetan banatuko dugu:

- 1. unea: Agurra eta aurkezpena. 1. urratsa
- 2. unea: Gaiaren garapena. 2-3 urratsa
- 3. unea: Barneratzea eta adierazpena. 4-5 urratsa



1. unea. Agurra eta aurkezpena



1. urratsa. Laguntzaileak emango dio hasiera saioari, partaideak agurtuz eta aurreko saioan landutako hainbat kontu gogoratuz.

Aurreko saioan Jainkoak maitatutako seme eta alaba izatearen esperientzia eguneratzen digun Bataioa aztertu genuen. Besteak beste, gure bizitzan, beti ez garela bataiatu, Jainkoaren seme-alaba kutun bezala dagokigun nortasun horren arabera bizi ikusi genuen, besteekiko eta Jainkoarekiko hartu-emanen, gure erabakietan edo jokaeretan, urruntze, akats eta desadostasunak izaten baititugu. Esperientziaz dakigu, gainera, ezinikusiak, mendekuak edo geure baitan ixteak ez gaituela sendatzen, alderantziz baizik, zauriak handiagotu egiten dituela. Horren parean, barkamenak sendatu egiten gaitu eta apurtutako hartu-emanak berregiten ditu. Saio honetan, Jesusek agertzen digun barkamenean eta Barkamenaren sakramentuan sakonduko dugu.



2. unea. Gaiaren garapena



2. urratsa. Barkamenaren esperientzia pertsonala

Hasteko, bananaka, norbere barrura joko dugu, barkamenaz, bere esanahiaz jabetzeko eta barkamenaren inguruan dugun esperientzia zer nolakoa den ikusteko.

Isilik gaudela eta musika jarrita, giro lasaian, laguntzaileak egingo dituen galderen bidez, taldekide bakoitzak gogoeta egingo du barkamenaz duen esperientziaren inguruan.

(Paper eta boligrafoak banatu, barneratzea egitean gogoetak idatz ditzaten eta, horrela gal ez daitezen).

Musika jarrita dela, laguntzaileak ondorengo galdera hauek egingo dizkie:

(Musika: <https://www.youtube.com/watch?v=Oevnn9-5JA4>)



**Entzuteko
klik egin irudian**

Galderak:

- Zer sentitzen duzu 'barkamena' hitza entzutean?
- Noiz sentitu duzu barkamen hori?
- Nork barkatu zaitu?
- Zer sentitzen duzu barkatzen zaituztenean?
- Eta zuk, barkamena eman duzu noizbait?
- Zer sentitzen duzu norbait barkatzean?
- Erraza ote da barkamena eskatzea? Eta, barkatzea?



Tarte honi amaiera emateko, gogoetaren bat batera jar dezakegu. Horretarako, oinatz bana emango diegu eta hortxe adieraziko dute: Zein arrasto utzi du niregan barkamenak? Astia emango diegu banan-banan galdera horri erantzun diezaioten eta batera jartzeko eskatuko diegu (talde handian edo talde txikietan banatuta, partaide-kopurua handiegia bada). I. ERANSKINA



3. urratsa. Jesusek Jainkoaren barkamena agertzen digu

Gure bizitzan eta hartu-emanetan, ezinbestekoa da barkamena jasotzea, barkamena ematea eta adiskidetzea. Izan ere, Ebanjelioetara joz gero, barkamena Jainkoarengandik berarengandik datorkizun zerbait dela ikusiko dugu. Jainkoaren barkamena nolakoa den erakusten digun Jesusen parabola entzungo dugu

- Laguntzaileak Aita Onaren (seme xahutzailearen) parabola irakurriko du (Lukas 15, 11-32) II. ERANSKINA
 - Bada Ebanjelioetan, gai honi lotutako beste hainbat pasarte ere, esate baterako: emakume adulteriogilea (Joan8, 1-11); zazpi milatan zazpi aldiz. (Mateo 18, 21-22).
- Taldean elkarrizketan jardungo dugu parabolaren mezuan sakontzeko. Elkarrizketan aurrera egin ahala, Jainkoak eskaintzen digun, Jesusek ebanjelioan agertzen digun, barkamenaren ingurukoak azalduko ditu laguntzaileak (ikus ERANSKINA katekista eta laguntzaileentzat).

Galdera hauek lagungarri izan daitezke:

- Zer nabarmenduko zenuke parabolako pertsonaiengan?
- Zure ustez, nor da protagonista parabolan?
- Jarri arreta aitaren ekintza eta keinuetan: herentzia banatzen du, joaten uzten dio, itxaron egiten dio, lasterka doa gaztearen bila, besarkatu, laztandu egiten du, jaia antolatzen dio, nagusiaren bila ateratzen da... Zer diotsue, zer pentsarazten?
- Zergatik haserretzen da seme nagusia? Zer esan nahi ote du horrek?
- Zein pertsonaiarekin zatoz bat?
- Zein ote da Jesusek parabola honen bidez helarazi nahi digun mezua?



3. unea. Bilketa eta laburpena



4. urratsa. Barkamen-Adiskidetzaren sakramentua

Duela aste batzuk ikusi genuenez, sakramentuak Elizaren ekintza dira eta horien bidez era berezia jaso dezakegu Jainkoaren maitasuna (grazia). Bada, Adiskidetzaren sakramentuaren bitartez, Elizak Jainkoaren izenean barkatzen gaitu eta honen errukizko besarkada jasotzen dugu, etxera itzuli zen semeak bezala.

Egun batzuk barru, haurrek Lehen Penitentzia ospatuko dute eta helduok ere ospakizunean parte hartzeko eta sakramentua hartzeko aukera dugu[1].

Noizbait barkamenaren sakramentua ospatu duten eta horrek zer ematen dien aditzera galdetuko die laguntzaileak. Baliteke batek baino gehiagok sakramentu honen irudi desitxuratu eta negatiboa izatea, erruduntasun, azterketa, zigor... eta antzeko ideien eraginpean. Ebanjelioan jasotzen den mezua guztiz kontrakoa da, errukia, harrera, barkamena, doakotasuna, poza..., agertzen baitira. Horregatik, laguntzaileak adiskidetzaren sakramentuaren ikuspuntu hau helarazi behar die eta helduak deituz seme-alabekin batera sakramentuan parte har dezaten.

Laguntzaileak sakramentuaren ospakizunaren nondik norakoak azalduko dizkie. Jainkoarekiko adiskidantzazko elkarte da. Bere maitasunetik urrundu ostean, etxera bueltatzen den semea Aitak egiten dion harrera eta ematen dion maitasunez beteriko besarkada geuri egiten eta ematen digu sakramentu honen bidez.



- Gogoeta egingo dut: zer ez dut ondo egin, noiz ez dut maitasunez, Jesusek nahi duen bezala, jokatu. Hauek dira nire bekatuak. Honi "kontzientzia-azterketa" ere deitzen zaio.
- Nahigabetuta nago horrela jokatzegatik, maitasunik ezagatik, eragindako minagatik. "Damutu" egingo naiz.
- Gaizki egin dudana ongi egiten saiatu nahi dut. Hau, "ontzeko asmoa" da. Zuzendu, norabidez aldatu egin nahi dut, ez dut gertatutakoa errepikatu nahi
- Nire hutsak aitortu egingo ditut, hitz bakunez esango dizkiot nire hutsak apaizari "aitortzan", aldatzeko benerako nahiaz. Apaizak abegi egin eta barkamena emango dit Jainkoaren izenean.
- Eskerrak emango dizkiot Jainkoari bere barkamenagatik. Eragindako minaren ordainetan zerbait egin dezakedan pentsatuko dut. "Penitentzia betetzea" da hori.



1. Animamos a dar importancia y realce a la celebración de la Primera Penitencia de los niños/as. Es ocasión de invitar a las familias, de animar a recibir el sacramento también a los adultos, de hacer una auténtica "fiesta del perdón"

2. hartzera bultzatzeko eta "barkamenaren jaia" egiteko aukera da.

Guzti hau bakarka egin daiteke, beharrezkotzat joz gero apaizarengana joanez, edo elkartean, barkamenaren elkarte ospakizunetan.

5. urratsa: Amaitzeko, taldean otoitz egingo dugu. Salome Arricibitaren "Setenta veces siete" abestia entzungo dugu

Entzuteko, klik egin irudian.



ELKARREKIN OTOITZ EGINGO DUGU

Aita, nire hutsegite eta makaltasunetan
bidera ateratzen zatzaizkidan,
zain zauzkadan, barkatzen nauen Jainkoa
zarela ikus dezadala.

Eta, besteen hutsegite eta makaltasunen aurrean,
Zuk nirekin jarduten duzun bezala
jarduteko gauza izan nadila.
Emaidazu indarra etengabe barkatzen
eta abegi egiten jakiteko.
Barkatu, Aita, gure zorrak,
geuk ere geure zordunei
barkatzen diegun bezala. Amen



LAUGARREN UNEA. Familian bizitzeko



6. urratsa: Saioari amaiera eman aurretik, asterako proposamena egin: bilatu tartea familian hitz egiteko eta barkamenaz dugun esperientzia batera jartzeko.

Une hori "prestatu" egin behar dugula, familian elkarriketan jarduteko baldintzak sortu egin behar ditugula azalduko die laguntzaileak: lasai eta gustura egoteko lekua eta unea bilatu, arreta ez galtzen saiatu, musika lasaia jarri... Galdera hauen haritik jardun daiteke:

- Etxean, familian, zerbait gertatzen denean, nekeza egiten zaigu barkamena eskatzea? Eta barkatzea?
- Nola sentitzen gara barkatzen dugunean?
- Gogora dezagun Aita Onaren (seme xahutzailearen) parabola: Nolakoa da Aita Jainkoak ematen digun barkamena?
- Esker ona adieraziko diogu elkarri, familian, elkar barkatu eta maitatu dugulako.



1. Eranskina. OINATZA



II Eranskina. AITA ONAREN PARABOLA

Jesusek esan zien: «Gizon batek bi seme zituen. Gazteenak esan zion aitari: "Aita, emadazu dagokidan senipartea". Eta aitak ondasunak banatu zizkien. «Handik egun gutxira, seme gazteenak, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera alde egin zuen eta han, galdukerian biziz, ondasun guztiak jan. Dena xahutu zuenean, gosete ikaragarria gertatu zen inguru hartan eta estu aurkitzen hasi zen. Orduan, herrialde hartako gizon batengana joan zen morroi, eta hark bere sailetara bidali zuen txerrizain. Txerriek jaten zuten ezkurrez asetzeko gogoa ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen. Orduan, pentsatzen jarriarik, bere baitan esan zuen: "Zenbat langile gure aitarenean nahi adina ogi eta gehiago dutela, eta ni hemen goseak hiltzen! Jaiki, aitarengana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. Ez dut gehiago seme-izenik merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala". Jaiki eta aitaren etxera abiatu zen.

Oraindik urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta errukitu egin zen; eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: "Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. Ez dut gehiago zure seme-izenik merezi...". Aitak, ordea, esan zien morroiei: "Ekarri bizkor jantzirik onena eta jantziozue, ipiniozue eraztuna eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizendua eta hil; egin dezagun festa-otordua; zeren seme hau hilda bainuen eta piztu egin zait, galdua nuen eta aurkitu egin dut". Eta festa hasi zuten.

Seme zaharrena soroan zen. Etxerakoan, hurbildu ahala, soinua eta dantzak sumatu zituen. Eta, morroi bati deiturik, zer gertatzen zen galdetu zion. Hark erantzun: "Zure anaia etorri da eta zekor gizendua hiltzeko agindu du zuen aitak, semea onik bereganatu duelako". Biziki haserretu zen anaia eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erreguka hasi zitzaion. Baina hark erantzun zion aitari: "Hainbeste urte da zure agindu bat ere sekula huts egin gabe zerbitzatzen zaitudala, eta ez didazu egundaino antxume bat ere eman, lagunekin festa egiteko; eta, horko zure seme hori, zure ondasunak emagalduekin jan dituen hori, etorri dela eta, zekor gizendua hil duzu". Aitak erantzun zion: "Seme, zu beti nirekin zaude, eta nire guztia zeurea duzu! Baina egoki zen poztu eta festa egitea, zure anaia hau hilda baikenuen eta piztu egin zaigu, galdua genuen eta aurkitu egin dugu!"»